



## Güre Istoriaren Bidaia

Begiak ireki zituen eta zegoen argitasunak min egin zion ninietan. Orduan, etzanda, igarotako oinazeaz eta berak izandako egoeraz jabetu zen. Momentu batean, segundo batzuk lehenago argitasunak itsutu zuten begiek orain malkoz beterik zeuden.

- Zuk!- oihukatu zuen beltzez jantzitako gizonak- altxa zaitetz zabor beltz nazkagarria!

Issoufek hasiera batean berari hizketan ari zitzaiola pentsatu zuen baina gero, bere ondoan zegoen beste mutil beltz bati zuzentzen ari zitzaiola konturatu zen. Gazte hura Ahmed zuen izena. Mauritaniatik etorrira zegoen eta hamabi urte baino ez zituen. Bere amarekin patera batean Gibraltarreko puntara ailegatu zen eta gero, Enkarterrira gizon maltzur batzuegandik ekarrita. Bidean ama galdu zuen eta honela kontatu zion Issoufi ezagutu ziren lehenbiziko egunean.

- Mauritaniako herrixka txiki batetik nator, lagun. Nire ama eta biok handik ihes egin behar izan genuen gure herrialdean izaten ari genuen goseteak gure familiako kide ia guztiak hil zituelako eta gure herrixka ia desagerrarazi baitzuen. “Ahmed,” esaten zidan amak, “ez beldurrik izan, seme, laster lur emankor batera ailegatuko gara eta han gure etorkizuna forjatuko dugu. Maitea, ez ahaztu inoiz gertatzen den gauza edonolakoa izanda ere, ez duzula inoiz atzera begiratu behar”. Bai, lagun, haiek izan ziren berak eskaini zizkidan azken hitzak, Mauritaniatik irten baino lehen eta patera madarikatu hura hartu baino lehen.

Issoufek ezin zituen malkoak ezkutatu, istorio honek bere baitan gordeta zituen sentipen erdilokartu ugari esnatu zituelako





- Oraindik amesgaiztoetan nire amaren irudia ikusten dut Gibraltarreko izkina batean, lurrean etzanda, hainbat gurutze gorria zuten kamiseta zuriz jantzita zeuden gizonen inguratuta. Beldur nintzen eta horregatik dena zakarrontzi baten atzealdetik ikusi behar izan nuen erdi ezkutatua. Orduan negar malkoak erori zitzaizkidan nire ama izara moduko zerbaitekin estali eta eraman zutenean.

Issouf istorio honekin nolabaiteko parekotasun sentimendu sakon bat sentitu zuen, eta askotan sentitzen zuen bakardadean, hitz eta istorio hauek ziren bere kide bakarrak.

Orduan oroimenez bete zitzaizkion bihotza eta arima eta bere haurtzaroaz gogoratu zen. Maliko eguzkiak bere urrezko izpiez sabana osoa eta bere ergoiena bainatzen zuenean amak musu batez esnatzen zuen. Bizi zen herrixkan txabolaz beteta zegoen eta oso pobreak ziren ez baitzuten ia zer jaterik. Hala ere, Issouf nolabaiteko zoriontasunean bizi zen haurra izanik, mutiko arrunt baten modura jolasean ibiltzen baitzen bere lagunekin. Ablo eta Petit, bai, haiekin joaten zen arratsaldero ergoienaren kanpoaldean zeuden meatze huts baten inguruetan jolastera. Arratsalde haiek bai zirela maitagarriak, xalotasunez beteta, umekerietan zenbiltzan mapa zahar batekin abentura izugarriak imajinatzen.

Ablo eta Petit ere utzi zuten eta gogoratzeak min izugarria ekartzen zion. Bere bizitza osoko lagun zahar eta aldi berean, gazte horien oroimenak bihotza samindu zion eta berriz negar malkoak ekarri zitzaizkion begi eta bihotzera.

- Haiek ere utzi naute -pentsatu zuen- . Zergatik? Ama ez zaitut ikusten, ez zaude nirekin, ama, non zaude?

Issoufen bizitza ez zen inondik inora erraza izan eta ez zen hortik aurrera ere izango arrosez beteriko mundua. Baina hemendik aurrera hasiko da bere bidea. Han hasiko da Issoufen patua, bere etorkizunaren bila etorritako gazte maliar baten bizitza eta memoriak.





- Ama, ama!- deitu zuen Issoufek bere ama- ama etor zaitetz!
- Seme, zer duzu?- erantzun zion maitasunez
- Ama, begira! Ablok egin du- esan zuen umeak eskuartearen zuen panpina erakutsiz.
- Bai polita! -erantzun zion amak- Noiz egin du, seme?
- Oraintxe eta esan dit nire urtebetetzerako oparituko didala –kontatu zion umeak ilusioz beteta.
- Seme, badakizu- esan zion amak tristuraz beteta- gu oso pobre garela eta ezin dizudala momentuz ezer oparitu baina zin egiten dizut ehungailuetara joaten naizenean tunika berri bat egingo dizudala.
- Benetan, ama?- galdetu zuen Issoufek bere begi beltz handiak irekiz.
- Bai seme.- esan zion amak musukatuz.
- Eta, ama, marra laranja eta beltzak izango ditu?- galdetu zion irrikaz beteta
- Bai seme- esan zuen amak irribarretsu.
- Ama, maite zaitut!- esan zion semeak besarkada handi bat emanetz

Gero, Issouf bere lagunekin jolastera joan zen eta Ablori eskerrak eman ondoren herrixka osotik joan zen bere panpina izugarria erakusten bere auzokideei.

- Issouf- galdetu zion Petitek- nola deituko duzu?
- Ez dakit...- esan zuen pixka bat triste- denbora eman dut zerbaitetan pentsatzen baina... ez dakit ze izen emango diodan... lagunduko al nauzu?





- Noski lagunduko zaitudala!- esan zion lagunak bostekoa joz.- Lehenik eta behin begiratu iezaiozu aurpegiari eta esadazu zer iradokitzen dizun bere irribarrea.
- Jo Petit! Hori oso zaila da!- esan zuen Issouf nahigabetuta- Pentsa dezagun beste zerbaitetan ongi?
- Ongi...Badakit!- oihukatu zuen Petit izugarritzko ideia eduki izan balu bezala- Begira iezaiozu begietara eta esadazu zer ikusten duzun.
- Petit!- marmaratu zuen Issouf- bere begiak bi harri baino besterik ez dira eta ez dut deituko “Harritxo”.
- Orduan, Ablorengana joatea izango da hoberena. Berak egin dizu panpina eta berak bataiatuko du.- esan zuen Petit azken hitza emanez.
- Konforme!- esan zuen Issouf

Abloren etxera ailegatutakoan kanpotik deitu zuten.

- Ablo, Ablo!
- Kaixo, umeak- esan zien bere ama- Zer nahi duzue?
- Abloren bila gabiltza- erantzun zuen Issoufek
- Oraintxe deituko dut, bere aitarekin joan da ortuetara
- Eskerrik asko, andrea- esan zuen Petitek
- Ez horregatik- Beno, beno zer daukazue hor?- galdetu zuen andreak umeak eskuartean zuten panpina seinalatuz.
- Gustuko al du Sira andrea zure semeak egin eta opari didan panpina?-galdetu zuen Issoufek irrikaz beteta





- Bai, oso polita da,-esan zuen irribarretsu- eta nola du izena?
- Oraindik ez dauka- erantzun zuen Issouf begirada triste batez.
- Nola ez duela izenik?- esan zuen Abloren ama jostalari
- Ez, ez dakit nola deitu, niretzat izan dudan oparirik politena eta bereziena da eta izen berezi bat behar du, baina ez dakit zein izan behar duen...
- Beno Issouf- laztandu zuen Sira- ez da hainbesterako izango, oraintxe deituko dut Ablo eta ea hiruron artean zerbait topatzen baduzue, ongi?
- Bai!- irri egin zuen Petitek.

Han, etxe aurreko atarian gelditu ziren eskaileratxo batean eserita. Halako batean, bidezidorrera begiratu zuten eta ume bat haiengana korrika zetoze oihuka ikusi eta entzun zuten.

- Petit, Issouf!- hots egin zien Ablok besoa astinduz agur modura.
- Ablo!- esan zuen Petitek ere bere besoak altxatuz

Haiek zeuden lekura heldu zenean Issoufen aurpegi tristea sumatu zuen eta zergatia galdetu zionean Issoufek honela erantzun zion:

- Ablo, oparitu zenidan panpinatxoa da nire kezka zergatia.
- Nik egindako panpinatxoa?- galdetu zion mutikoak harriturik- Ez da zure gustukoa izan ala?
- Ez, Ablo, ez da hori- esan zion Issoufek penaturik.
- Orduan? Lagun,- esan zuen Ablok- zer da panpina duen gakoa?





- Ez dakidala nola deitu- aitortu zuen Issoufek azkenean lotsaz beteta- hain berezia da niretzat...ez dudala berarentzat aproposa den izenik topatzen.
- Lasai, lagun- lasaitu zuen Petitek- hiruron artean zerbait aurkituko dugu.
- Noski!- esan zuen Ablok- oso erraza da, ea, zuretzat zer da berezia?
- Niretzat...-pentsakor jarri zen Issouf- niretzat nire ama da baina ez dut Bintou deituko, ez dakit baina izen lirain bat behar du, polita, ahoskatzeko ez oso zaila eta gainera ezaugarri batzuk izan behar dituena, ez du edozein balio!
- Ez duzu ezer eskatzen motel!-hasperen egin zuen Ablok.
- Horrexegatik etorri gara zure etxeraino,- azaldu zion Petitek- Issouf oso nahastuta zegoen eta arrazoi osoz... gauza zera da, pentsatu dugula agian zuk, panpinaren kreatzaile eta bizitza emailea zarenez...ez dakit agian ideiaren bat zeneukan. Baina- gibeldu zitzaiona hotsa- ikusten dugunez ez daukazu ideiarik ere... gu bezala.
- Lasai- esan zuen mutikoak adoretsu- ez zarete ezertarako ez hona etorri, izen bat jarriko diogu horretarako bizitza osoa eman behar badugu ere. Issouf zer nolako ezaugarriak izan behar ditu izen horrek:
- Izena, askatasunaren seinale bat izatea gustatuko litzaidake, arintasuna erakutsi, txori baten modukoa, ulertzen nauzue?
- Bai...baina..., jo! Issouf gauza oso sailak aurki ditzagun nahi duzu eta...horretarako asko pentsatu behar dugu!-kexatu zen Petitek marmarti
- Badakit!- esan zuen Ablok halako birloratze batean- zergatik ez duzu...